

# Zer dakizu gure emakume ZIENTZIALARIEI BURUZ?

---

## Deialdia eta Oinarriak

### **Zein da lehiaketa honen HELBURUA?**

Zientziari ekarpen garrantzitsuren bat egin duten emakume zientzialariak ezagutaraztea Twitter edo/eta Instagram bidez.

### **Nori ZUZENDUTA dago?**

Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasle eta langileei, eta baita zientzian emakumearen inguruan interesa duten guztiei ere.

### **PARTE HARTZEKO baldintzak**

- 1.** Pertsona bakoitzak Twitter edo/eta Instagram bidez hartu dezake parte, nahi adina aldiz.
- 2.** Parte hartzeko, emakume zientzialari baten inguruko informazioa bidali, eta @ztf\_fct (Twitteren) y @ztf\_fct (Instagramen) aipatu.
- 3.** Argitalpenek hizkuntza ofizialetako batean egon beharko dute (Euskara eta/edo gaztelera) eta hizkera ez-sexista errespetatu.
- 4.** Iruzkinek beti jarraituko dituzte unibertsitateko komunitateko etikaren eta elkarbizitzaren arauak.

### **NOLA iritsiko zaigu eta ZEIN da entregatzeko epea?**

Epea otsailaren 11tik (Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna) martxoaren 8ra (Emakumearen Nazioarteko Eguna) izango da.

### **BALORAZIO irizpideak eta prozesua**

Twitter: gutxienez 25 aldiz bertxiotutako iruzkinak irabaziko du, eta jarraian epaimahaiak hautatutakoen artean egingo ditu balorazioak.

Instagram: like gehien dituzten hiru argitalpenen artean epaimahaiak erabakiko du zein den irabazlea.

## **EPEAK**

Lehiaketa prozesuan zehar hau da jarraituko den egutegia:

- 1.** Lehiaketa **otsailaren 11n 0 ordutan** hasiko da.
- 2.** Epea **martxoaren 8an 24 ordutan** amaituko da.
- 3.** Epaimahaiaren epaiak eta irabazlearen komunikazioa: **martxoak 9.**

Antolatzaileek aurreko epeak aldatzeko eskubidea izango dute, eta behar besteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dute.

## **EPAIMAHAIKIDEAK**

Epaimahaia ZTF-FCT Berdintasun Batzordeko kideek osatuko dute.

## **SARIA**

**Martxoaren 9an**, txio eta Instagrameko argitalpen irabazleek EHUDendan erabiltzeko 50€-ko bonu bat jasoko dute.

## **EPAIA**

Epaimahaiaren epaia **martxoaren 9an** ezagutuko da **Twitter** eta **Instagram** bidez.